

# Euskararen normalizazio prozesuaren balorazioa, euskaltegien ikuspuntutik

---

## Alde positiboak:

- Hiriko euskaldun kopurua hazi egin da, eta gero eta ohikoagoa da Bilboko kaleetan euskara entzutea, euskara ez da hizkuntza arrotza. Gero eta euskara ikasle eta erabiltzaile gehiago dago, eta hirian euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak ugartu egin dira.
- Eragile ezberdinek euskararen normalizazioan egin duten ahalegina handia izan da:
  - administrazio publikoa: hizkuntza paisaian euskararen presentzia areagotu da, arreta zerbitzuetan, diru-laguntzak ematean, kanpainak...
  - euskaltegiak
- Hezkuntzaren bidez euskararen normalizazioan aurrerapauso handia eman da (B eta D ereduak ezartzea): belaunaldi berrietan ezagutza bermatzen da (komunikazio tresnatzat ez hartu arren)
- Euskararen normalizazio prozesurako laguntza ekonomikoak handiak dira.
- Euskara jakitea ezaugarri positibotzat hartzen da, harrotasuna ematen duen ezaugarria da.
- Euskararen derrigortasunak (lan munduan sartzeko beharrezkoa izatea, adibidez) normalizazioari lagundu dio.
- Gero eta egitasmo gehiago daude euskararen ingurukoak (kanpainak, programak, Darabilbo...)

## Hobetu beharrekoak

- Bilbon euskararen normalizazio prozesua martxan dagoela adierazten duen ezaugarririk ez dagoela aipatzen da.
- Hori dela eta erakundeen, eta batez ere, Bilboko Udalaren hizkuntza politikak eraldaketa bat behar duela aipatzen da: euskararen normalizazioak orain baino baliabide ekonomiko gehiago behar ditu, besteak beste ondorengoak lortzeko:
  - Euskara ikasteko laguntza ekonomiko gehiago eman behar ditu
  - Euskarazko ekintza gehiago antolatu behar ditu
  - Euskara ikasi zein erabiltzeko kanpainak egin behar dira.
  - Udal langileen euskara ezagutza bermatu beharko luke (kontratupekoena ere)
  - Euskararen ordenantza sortu eta betearazi behar da
  - Euskara Batzordea osatu behar da Udalean
- Ezagutzatik erabilerarako saltoa eman behar da: euskararen erabilerari garrantzia soziala eman behar zaio eta kulturaren transmisiorako konpromisoa zabaldu jendartean.

- Euskara ikasteak zentzua izan dezan erabilera espazioak bermatu behar dira: erabilerarako salto hori eman ahal izateko beharrezkoa da erabilerarako espazio/gune ezberdinak aurreikusi eta sortzea: gune erreferentzialak, eskaintza kulturala, euskararen arnasguneak... sortu behar dira eta gune horien arteko elkarlana bermatu behar da.
- Bilboko Udalaz gain, erakunde ezberdinen arteko plangintza estrategiko bat behar da (Bilboko Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza) eta plan horrek presentzia izan behar du, agerikoa izan.
- Euskal hiztunek zein euskalgintzak bere osotasunean biltzeko, elkartzeko beharra dauka.
- Jendearen euskararekiko eta kulturaren transmisioarekiko konpromisoa zabaldu behar da: maila pertsonalean euskararekiko militanteagoak izan behar dugu.
- Euskararen irudia hobetu behar da: hezkuntza sistemaren hezkuntza bihurtzen ari da, "ikasgai edo asignatura" bat besterik ez da askorentzat. Euskara prestigiatzeko beharra atzematen da.

### **Euskaltegietara erakartzeko ikasle segmentu berriak:**

- Langabetuak
- Etorkinak
- Gazteak
- Profesionalak
- Jubilatutak
- Umeekin eta gazteekin aritzen diren begiraleak...
- Politikariak
- Gurasoak
- Euskaraz jakin arren erabiltzeko ohiturarik ez dutenak. Horien artean, familia eraldunetako eredu euskaldunetan ikasitako gazteak, adibidez.

### **Segmentu horiek erakartzeko faktoreak/baldintzak:**

- Batez ere euskararen ikasketaren doakotasunari edo prezioak murriztu beharri ematen zaio garrantzia hemen. Jendea erakartzeko beharrezkoa ikusten da euskara ikastea orain baino merkeagoa izatea. Zentzu honetan, asko azpimarratzen da, gainera, diru-laguntza eta beken sistemak hobetu beharra.
- Jendarte euskararekiko motibatu eta ilusionatu beharra dagoela ere gehien aipatu diren alderdien artean kokatzen dira. Beharrezkoa da jendea euskarara erakartzea, eta hor, kanpainak zer egin handia dutela uste da. Euskararen erakargarritasuna aldarrikatu beharra dagoela atzematen da.
- Motibazio hori gainera, zentzu desberdinetan egin beharra dago:
  - Familia giroan eragiteko motibazioa
  - Lagun artean euskaraz aritzeko motibazioa